



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Departamento : OBRAS Y SERVICIOS

Nº de Expediente: 03-1222

**AMOREBIETA-ETXANOKO UDAL HILERRIEN BARNE
JAURPIDEARI BURUZKO ARAUDIA**



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

I. ATALBURUA.- ERABAKI OROKORRAK

1. Artikulua.-

Amorebieta-Etxanoko udal-hilerriak zerbitzu publikoko ondasunak direnez, Udalbatzarraren administrazio, zuzendaritza eta agindupean egongo dira, Araudi honetan xedatutakori jarraiki, Epai-Agintaritza edota Sanitate-Agintaritzari dagozkien agintepideak salburuk utziz.

2. Artikulua.-

Beraz, lehen artikuluan xedatutakoaren arabera, hilekiko jaurtzea dela eta, indarrean daogen araudiari jarraiki, Udal-Erakundeari honako aginte hauek dagozkio:

- a) Hilerria, hildakoentzako eraiketak, zerbitzu eta gainontzeko instalazioak antolatzea, mantentzea eta egokitzea.
- b) Hilerriko barne-jaurpidea, gorpuak bertatik garraiatzea barne.
- c) Hilobiak eskuratzeko baimenak ematea eta edozein motatako hileta-eskubideak aitortzea.
- d) Lurzorua okupatzeagatik eta lan-baimenak eta hileta-eskubideak emateagatik, legez ezarritako eskubide eta arielak eskuratzea.
- e) Xedatuta dauden, edo etorkizunean xedatuko diren, sanitate eta garbitasun neurriak betetzea.
- f) Hilerriko langileak izendatzea, zuzentzea eta kentzea.
- g) Baimena ematea partikularrei hilerrian edonolako lanak eta instalazioak egiteko; lan eta instalazio horiek zuzendu eta ikuskatzea.
- h) Berari dagokion beste edozein betebeharrak, kontutan izanda hilerrien jabe dela eta herri-erakunde izanik udalerriko iharduerak araupetu egin behar dituela.

3. Artikulua.-

Partikularren eskubide eta betebeharrak hauexek dira:



Amorebieta-Etxano Udala
Bizkaia

- a) Hildakoa hilerrian duintasunez lurperatzeko eskubidea; bere arraza, erlijio, sorterrri edo ideologiak ez du diskriminaziorik eragingo.
- b) Hildakoaren erlijio edo pentsakera kontutan izanda, hileta-eskubide eta erritoak aukeratzea eta burutzea, Araudi honetan xedatutakoaren arabera.
- c) Bakoitzak bere lur-zatia, nitxoa, panteoia, etab. araudiak xedatzen duen eran zainduta eta apainduta edukitzea.
- d) Ordenantza fiskalak zerbitzu-emaketagatik ezartzen dituen tasa edo arielak ordaintzea.
- e) Udal-Erakundeak edo agintedun beste edozein Administrazio edo Erakundek hileta-sanitaterako zaingoaz eman ditzan erabakiak onartzea eta betetzea.

4. Artikulua.-

Konfesio erlijioso desberdinen edo legez onarturiko entitateen ordezkariak hiletak burutzeko egokien deritzena erabaki ahal izango dute, beti ere kasu bakoitzerako ezarritako arauak betez eta hilenganako beharrezko itzala gorderik.

5. Artikulua.-

Ezin izango da hilerrira sartu, bere egoera edo beste arrazoi batzurengatik, hango lasaitasun edo ordena nahas lezakeen pertsona edo talderik. Debekatuta egongo da hara inolako ibilgailu edota abererik eramatea; debeku honetatik salbuetsita daude hildakoak eramateko ibilgailuak eta hilerrian bertan erabiliko diren eraiketa gaiak garraiatzeko direnak.

6. Artikulua.-

Definizioak:

Araudi honetako ondorengo hitzen esanahia hauxe da:

Gorpua: Gizakiaren gorputza hil denetik hasita bost urte igaro arte.

Gorpu-hondarrak: Gizakia hil denetik bost urtegarrenean, materia organikoa deuseztatzeko fenomenoak bukatuta, gizakiaren gorputik gelditzen dena.

Usteltzea: Gorpua mikroorganismoek eta fauna osagarriek atakaturik, materia organikoa desagertarazten duen prozesua.

Eskeletizazioa: Materia hilaren azken desintegrazio-fasea: eskeletoaren atal bigun edo lokarri gabeko hezur-hondarrak banatzen direnetik guztiz mineralizatu arteko fasea.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Errauspena edo kremazioa: Gorpu errauts bihurtzea, beroa erabilia.

Aldibaterako irauaraztea: Usteltze prozesua atzeratzeko baliabideak.

Baltsamatze edo tanalopraxia: Usteltze prozesuak ager daitezen ebitatzen dituzten metodoak.

Giza-hondarrak: Gizaki biziari moztu edo kendutako gorputz-zatiak, eta gorpu eta gorpu-hondar kontzeptuetan sar-tzen ez direnak (abortua, esate baterako).

7. Artikulua.-

Gorpuen sailkapena.

Araudi honetan, gorpuak bi taldetan sailkatuko dira, heriotzearen zioa zein izan den kontutan harturik:

I. taldean sartuko dira:

- 1) Osasun arazoak sor ditzaketen heriotze-zioak -kolera, karbunkoa- jasan dituzten gorpuak, eta sanitate agintariek adieraz ditzaten bestelako zioak jasan dituztenak.
- 2) Produktu erradiaktiboekin kutsatutako gorpuak.

II. taldean sartuko dira.

I. taldean adierazi ez diren zioengatik hildako gainontzeko gorpuak.

II. ATALBURUA KUDEAKETA, ADMINISTRAZIOA ETA MANTENTZEA

1. atala: Jabegoa eta Instalazioak

8. Artikulua.-

Udal hilerriak Amorebieta-Etxanoko Udal Erakunde Txit Gorenaren jabetzapekoak dira. Berari dagokio hilerriok zuzentzea, administratzea, araupetzea eta mantentzea, Estatuak eta Euskal Herriko Autonomiadun Elkarteak beren aginte eremuen barruan emandako, edo emango dituzten, arau orokorretan xedatutakoaren kaltetan gabe.

9. Artikulua.-



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Udaleko Aurrekontu Orokorretan udal-hilerrietarako urtero aurrirakosten diren diru-atalak erabilia, udal-hilerrietan honako instalazio hauek egongo dira gutxienez:

- a) Kulturako besterik ez den kapera edo areto berezi bat.
- b) Hilobiak hustu eta garbitzean ateratako zurak, arropak, hiletetarako tresnak eta giza-hondarrak ez diren beste gauza guztiak erretzeko labe bat. Etxano eta Bernagoitiko hilerriek, Amorebietakoa erabili ahal izango dute horretarako.
- c) Hezurtegi amankomun bat.
- d) Abortu, interbentzio kirurgiko eta mutilazioen ondorioz aparte gelditzen diren giza-hondarrak lurperatzeko sail bat.
- e) Gorpu-gordelekua.
- f) Udalerriko biztanle kopuruaren arabeko hilobi hutsak, edo, behintzat, horiek egiteko besteko lur-zatia.

2. ATALA: Administrazioa

10. Artikulua.-

Administrazio-iharduna, horretarako izendaturiko herri-lanariak/ek burutuko du/te, Lan eta Zerbitzu Batzordeko arduradun politikoen zuzendaritzapean.

11. Artikulua.-

Lurperatzailearen zereginak hauexek dira:

- 1.- Hilerria, bere tegiak eta barruko aretoko apaingarriak txukun edukitzea.
- 2.- Hilerrian dauden gauza guztiak zaintzea, bai apaindurak, bai hilobiak, baita bertako lanak egiteko beharrezkoak diren tresna eta lanabes guztiak zaintzea ere.
- 3.- Garbi mantentzea kapera edo hildakoak gordetzeko aretoa, gainontzeko tegiak eta udal Hilerriak osatzen dituzten beste alde guztiak ere.
- 4.- Hilerriko garbitasun eta osasungarritasun baldintzei, edo apaingarriei gerta dakizkien anomalia guztien berri ematea Lan eta Zerbitzuen Informazio Batzordari, eta hilerria osatzen duen eremu osoa garbi mantentzea.
- 5.- Lurperatzeko eramaten dizkioten gorpu eta giza-hondarrak hartzea eta dagozkien tokira eramatea, eta, hala dagokionean, haiek gorpu-gordelekuan gorde-tzea. Udal-Erakundeko Lan eta Zerbitzu Sailak luzatutako Lurperatze Txartela aurkez diezaiotela eskatu beharko du. Bete ondoren, zerbitzua burututakoan, ados dagoelako zigiluaz itzuli



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

beharko du Lurperatze-Txartel hori, eman duen Sail berera. Ezinbesteko betebeharra da hori ehorzketari ekiteko. Heriotzea asteburuan edo jai egun batean gertatuz gero, Lurperatze-Txartela lurperatzaileak berak luzatuko du, ordutik hasita lehenengo lanegunean aurkeztu beharko duelarik Udal Erakundeko Lan eta Zerbitzu Sailean.

6.- Lurperaketak edo desobitzeak egiteko eta hilobiak itxi eta estaltzeko beharrezkoak izan daitezen urrats material guztiak betetzea.

7.- Hilobiak hustu eta garbitzean atera daitezen arropa, hiletetarako tresna eta bestelako lanabesak deuseztatzea.

8.- Hilerriko giltza edukitzea, Alkatetzak aurkakorik ez dioen bitartean.

9.- Ordena mantentzea hilerri barruan, leku hori deshondra litzakeen ekintzak ebitatzea, eta hilerriari eta haren zorpeko aldeari zor zaionitzalaren aurkakoak izan litezkeen iharduerak burutu ez daitezela ahalegintzea.

10.- Alkate-Udalburu jaunak edo Lan eta Zerbitzuen Informazio Batzordeko arduradun politikoak emandako aginduak betetzea.

12. Artikulua.-

Honako Errolde Liburu hauek edukiko dituzte Udal-Erakundeko Lan eta Zerbitzu Sailean, berariaz izendaturiko langileek, eta Udal-Hilerrietako bulego administratiboetan, lurperatzaileek:

- a) Ehozketen errolde-liburua.
- b) Desobitze eta lekuz-aldatzeen errolde-liburua.
- c) Hilobien errolde-liburua.
- d) Agirien sarrera eta irteeren errolde-liburua.

13. Artikulua.-

Hilobien errolde-liburuan, ondorengo xehetasunak erasoko dira:

- a) Jabearen izen-deiturak, eta berari buruzko beste xehetasun batzuk.
- b) Esleipen-data, Udal-Erakundeak emandako eskubide-mota, eta haren bukaera data.
- c) Hilobien identifikazioa, haien kokapena eta dagokin orden-zenbakia zehaztutz.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- d) Hilobi jakin batean ehortzitako gizakien izen-deiturak eta beraiei buruzko bestelako zehaztasunak. Hildakoen ehorketa eguna ere erasota utzi beharko da.
- e) Hilobirako baimena iraungi delako edo beste arrazoiren bategatik, hilobia hutsik, Udalaren esku, utzi behar den eguna.

14. Artikulua.-

Ehorzketen erroldeliburuan hauxe zehaztuko da:

- a) Hildakoaren izen-deiturak, eta berari buruzko bestelako zehatasun batzuk.
- b) Helbidea edo jatorria.
- c) Heriotze-data, dagokion egiazta-girian erasota dagoenaren arabera.
- d) Heriotzearen zioa, dagokion egi-aztagirian erasota dagoenaren arabera.
- e) Ehorzketa egin den data.
- f) Ehorzketa zein nitxotan egin den, eta hura arazo gabe aurkitzeko beharrezkoak izan daitezen xehetasun guztiak.
- g) Ehorzketa egiteko baimena eman duen epaitegia.

15. Artikulua.-

Desobitze eta tokiz-aldatzeen erroldeliburuan, hauxe zehaztuko da:

- a) Gorpu edo gorpu hondarretaz arduratuko denaren izen-deiturak eta bestelako xehetasunak.
- b) Desobitu edo tokiz aldatuko den gorpuaren izen-deiturak eta bestelako xehetasunak.
- c) Heriotze-data.
- d) Gorpua berriz ehorzteko, zeintoki edo hilobitara eramango den.
- e) Gorpua tokiz aldatu edo desobitzeko baimena eman duen agintariaren izena eta baimen data.

16. Artikulua.-



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Agirien sarrera eta irteeren erroldeliburuan, Udaletxetik jasotako, edo Udaletxera bidalitako, udal-hilerriei buruzko agiri guztiak gordeko dira. Agiriotan hauxe agertu beharko da: ordena zenbakia, egin deneko data, sarrera edo irteerako data, nori zuzenduta dagoen edo nork igorri duen, baita erregistroan sartutako agiriaren laburpentxo bat ere.

3. ATALA.: Iraunaraztea.

17. Artikulua.-

Amorebieta-Etxanoko Udalak, Bulego-Teknikoaren bitartez eta Araudi honetako 18. art.an xedatutakoaren kaltetan gabe, bere ardurapena izango ditu honako lan hauek: bide eta bideskak, estolderia sarea, argiteria, zuhaitz eta lorategiak, eraikin eta interes osorkorrekoak diren gainontzekoak behar bezala mantentzea, iraunaraztea eta garbi edukitzea.

18. Artikulua.-

Jabeak dira hilobiak eta bertako guza eta instalazioak garbi edui eta iraunarazi behar dituztenak.

Jabeek ez badute hilobiak garbi eduki eta iraunarazteko beharra betetzen, edo hilobiak narriaturik daudela ikusiz gero, Udaleko ehorzketa zerbitzukoek hori egiteko eskatuko diote eragindako eskubidearen jabeari. Jabeak ez badu lana adierazitako epealdian burutzen, Udal Erakundeak egin ahal izango du, haren ordezkari eta kontura, aipatu eskubidearen indargabe-tzeari buruz Araudi honetako 40. artikuluan aurrikusita dagoenaren kaltetan gabe.

19. Artikulua.-

Debekatuta dago hilerri barruan marmolak edo bestelakoak zerratzea eta zatikatzea. Baldintza berezietan ezinbestekoa bada hori egitea, lehendabizi baimena eskatu beharko zaio aginpidedun udal sailari, hark lan horiek non burutuko diren, toki zehatza, adieraz dezan.

III. ATALBURUA

HILOBIAK

20. Artikulua.-

Amorebieta-Etxanoko udal hilerrietan bost (5) hilobi mota daude:

a) Ehorzketa nitxoak.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- b) Giza hondarrak gordetzeko nitxoak edo hezurtegiak.
- c) Panteoiak.
- d) Lurrezko hilobiak.
- e) Obrako hilobiak.

1. ATALA: Nitxoak

21. Artikulua.-

Udal Erakundeari dagokio ehorzketa nitxoak eta giza-hondarrak gordetzeko nitxoak egitea, beharizanei buruzko estatistika aurrikuspenek aholkatzen duten neurrian. Udal Erakundeari dagokio nitxo horien gaineko ehorzketa eskubidea ematea eskatzen dutenei, eskatu duten ordenean, bertan utz ditzaten gorpuk.

22. Artikulua.-

Indarrean dagoen Hileta-Sanitate-rako Zaingoari buruzko araudiak ezartzen dituen osasun-arau eta neurrien arabera izango dira aurrerantzean egingo diren ehorzketa-nitxoak eta gizahondarrak gordetzekoak. Elkarri darraizkien zenbakiak jarriko zaizkie.

Ehorzketa nitxoaren gaineko ehorzketa eskubidea, gorpua nitxootan hamar urtetan uzteko emango da; eskubide hori Ordenantza Fiskalean ezarritako tasak ordainduz jasoko da; eskubideok, Ordenantzak denboran zehar jasan litzakeen aldaketei atxikiko zaizkie.

23. Artikulua.-

Ehorzketa nitxoetan hamar urtetarako egote hori Ehorzketen erroldeliburuan erasota dagoen ehorzketa egunetik hasita kontatuko da. Denboraldi hori igarotakoan, Udal-Erakundeak desobitu egingo ditu gorpu-hondarrak eta, gehienez, hilabetez gordeko ditu hezurtegi amankomun batean. Epe horretan, eta dagozkien tasak oraindu eta gero, oinordekoek giza-hondarrentzako nitxoa eskatu ahal izango dute. Aurrikusitako hil horretan ez bada eskaerarik aurkezten, hondarrak hezurtegi amankomunean utziko dira, eta deuseztatu egingo dira, eta inolako marka edo didentifikaziorik ez dutenez edukiko, gero ezinezkoa izango da hondar horiek berreskuratzea.

Nitxo bakoitzean ehorzketa bat besterik ezin izango da egin; nitxo jakin batetik lehenago egon diren hondarrak legezko eran ateraz gero, bai oster.

24. Artikulua.-



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Giza hondarren nitxo edo hezurtegien gaineko hileta-eskubidea, aldi batez emango da, 30 urtetarako. Giza-hondarrentzako gehienezko emaketa-aldia igarota, hondar horiek hilobitik atera egingo dira, hezurtegi amankomunean utzi eta birrindu egingo dira, inolako marka ez identifikaziorik gabe. Hori egindakoa, ezin izango dira berreskuratu.

25. Artikulua.-

Ehorzketa nitxoetan edo hondar nitxoetan egoteko aldia indarrean egonda, senitartekoen hildakoaren hondarrak Estatuko edo atzerriko beste hilerriren batera eraman nahi izanez gero, Sanitate Agintaritzaren eta Udalaren baimena jaso beharko dute lehenik. Senitartekoen ezin izango diote eskatu udalari egun horretatik gorpuaren egote-epea bukatu arte falta den aldiari dagokiona itzul diezaiela.

26. Artikulua.-

Giza hondarrentzako nitxo indibidualetan, gehienez familia bereko sei gorpuren hondarrak utziko dira, aldezturik ezarritako egote-aldi barruan.

27. Artikulua.-

Ehorzketako edo hondarrentzako nitxoaren gaineko hileta eskubidea bakarrik jarriko da ondorengo izenean:

- a) Norbanako bat.
- b) Ezkontideak.
- c) Administrazioak onarturiko erlijio elkarte, sorospen zentru edo ospitaleen izenean, elkarte eta zentruotako kideek eta bertan hartutakoek erabiltzeko bakarrik.
- d) Udalbatzak, fundazio edo legez eraturiko erakundeen izenean, bertako kide edo langileek erabiltzeko bakarrik.

28. Artikulua.-

Udalak horri buruz indarrean dagoen osasun-araudia beterik, nitxoaren ixte-modu, sistema, kolore eta bestelako elementu guztiak zernolakoak izan behar duten zehaztuko du, nitxo guztien artean batasuna egon dadin.

28-bis Artikulua.-

Kolunbarioak errausketek sortzen dituen errautsak gordailatzeko nitxoak izango dira. Kolunbarioen hileta eskubidea 50 urtetarako emakida bidez antolatuko da.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

2. ATALA: Panteoiak

29. Artikulua.-

Panteoiak eraikitze hileta-eskubidea, panteoientzako lur-zatiak libre egonez gero emango da. Hileta eskubide hori 99 urte egongo da indarrean; hala ere, Udalak, egoki baderitzo, aldi hori txikiagoa izan dadila erabaki dezake Osoko Bilkuran. Emakida-epea igarota, iraungi egingo da hileta eskubidea, eta Udalak bereganatu egingo du panteoia. Titularrak, orduan, ez du izango kalte-ordainik jasotzeko inolako eskubiderik. Kasu horretan, gorpua lurperatu denetik gutxienez 10 urte igora badira, hilobitik aterako dira gorpu-hondarrak, araudi hoentako 24. art.an xedatutakoaren arabera.

30. Artikulua.-

Panteoiaren eraiketaz hileta-eskubidearen titularra arduratuko da, eta bere kontura izango da gainera. Panteoia eraikitze, ondorengo aurkeztu beharko du Udal-Erregistro Nagusian: lanbaimen eskaera, egin nahi duen lanari dagokion egitasmoa, aurrekontua eta eskatzen zaion gainontzeko dokumentazioa. Lan baimenean, panteoi bakoitza zenbat ehrozketetarako den zehaztuko da, hau da, panteoiaren edukiera, barruko balda edo apal kopuruaren arabera zehaztuko da.

Era berean, lanak zein egunetan hasi eta zeinean bukatuko diren ere adieraziko da; lanak bukatze epea ez da izango urtebetekoa baino luzeagoa. Lanen hasiera edo bukaerako epeetariko bat igarota, indargabetu egingo da lan baimena eta hileta-eskubidea. Orduan, Udalak berreskuratu egingo du lur-zatia, eraikin eta guzti, eta titularrak ez du izango kalteordaina jasotzeko eskubiderik.

31. Artikulua.-

Edozein obra egiteko, baita panteoiak konpontzeko ere, aginpidedun Udal-Erakundeak onartu egin beharko du obra hori egin dadila, eta baimena eman behar-ko du. Horri buruzko espedienteak eta ezinbesteko txosten teknikoak Udaletxeko Bulego Teknikoan ihardupidetuko dira.

32. Artikulua.-

Lanak bukatu eta gero, eraikileak edo bere ordezkariak panteoia eraikitze erabili dituen materialetatik gelditzen den guztia, hala nola lurra, harriak, hondakinak, etab. kendu beharko ditu handik. Bere ibilgailuarekin edo beste elementuren batekin kale, instalazio, eraikin edo beste edozertan kalterik egin badu, bera arduratu beharko da hori konpontzeaz.

3. ATALA: Lurrezko Hilobiak

33. Artikulua.-



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Lurrezko hilobirako hileta-eskubidea 10 urtetarako emango da. Urte horiek igarota, gorphondarrak hilobitik aterako dira, 23. art.an xedatutakoaren arabera, eta hezkurtegi amankomunera eramango dira. Horrek ez du inolako gasturik ez eskubiderik sortuko.

34. Artikulua.-

Aurreko artikuluan xedatutakoa gora-behera, gorpu-hondarrak hilobitik atera baino hilabete lehenago hildakoaren senitartekoek hala eskatutz gero, eta Ordenantza Fiskalean agertzen diren tasak ordaindu eta gero, haren gorpu-hondarrak hondar-nitxo batera eramango dira, eta han utzi ere 30 urtez.

4. ATALA: Obrako Hilobiak.

35. Artikulua.-

Obrako hilobien gaineko hileta-eskubidea 20 urtetarako emango da gehienez. Epe hori igarota, iraungi egingo da hileta-eskubidea. Orduan, Udalak bereganatu egingo du eraikitako hilobia, eta titularrak ez du izango inolako kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik, azken ehorzketatik 10 urte igaro badira, hilobitik aterako dira, 23. art.an aurrikusitakoaren arabera.

IV.- ATALBURUA HILETA-ESKUBIDEA, TITULARRAK, TRANSMISIOAK.-

36. Artikulua.-

Ehorzketetarako nitxo, hilobi edo panteoien erabileraz osatzen den hileta-eskubidea, horietan gorpuak edo giza-hondarrak gordetzeko besterik ez da ematen: ezin zaie bestelako erabilerarik eman. Dena den, Udalak nitxo, hilobi, panteoi etab.en zertarakoa eta jabetzaz erabakitzeko eskubidea du.

37. Artikulua.-

Amorebieta-Etxanoko Udaleko Al-kate-Udalburu jaunari dagokio hileta-eskubidea ematearena.

38. Artikulua.-

Hilobien gaineko hileta-eskubidea honelaxe bermatzen da: dagokion Erregistro liburuan inskribaturik utzita eta Udaleko Idazkariak, Alkatetzaren oniritziaz, hilobi bakoitzarentzako bere agiri nominatiboa eginda.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

39. Artikulua.-

Hileta-eskubidea emateko eta hobeto identifikatzeko, hilerrietako lurzoru probetxagarria honelaxe bananduko da:

- a) Lurrezko hilobiak lur-zatika bananduko dira, eta lur-zati bakoitza iladatan. Hilobi horiek elkarri darraizkien zenbakiak edukiko dituzte.
- b) Enterramendu-nitxoak blokeka sailbanatuko dira. Blokearen zenbaki edo izenaz, eta bloke barruan dagokien ordena zenbakiaz identifikatuko dira.
- c) Gorpu-hondarren nitxoak nitxo arruntak baino txikiagoak izango dira, eta horien moduan sailbanatuko dira.
- d) Panteoi bakoitzak dagokion zenbakia edukiko du.
- e) Obrako hilobi bakoitzak dagokion zenbakia edukiko du.

40. Artikulua.-

Hileta-eskubidea ondorengo kasuetan egongo da iraungita, eta beraz, Udalak bereganatzeko moduan:

- a) Emakida epeak igaroz gero, edo, ordainketa epeak igarota interesatuak ordaindu ez badu, hala egiteko eskatu zaion arren.
- b) Hileta-eskubidearen transmisioa Araudi honetan baimendutakoa ez den norbaiti eginez gero.
- c) Hilobia narriaturik badago. Hondamendiko egoera hori aldarrikatzeko, eta, ondorioz, hileta-eskubidea iraungitzeko, Lan eta Zerbitzu Arloko arduradun politikoak espediente bat irekiko du, eta bertan txosten tekniko eta legezkoa, eta Gobernu Batzordearen erabakia sartuko ditu. Espediente hori jende-aurrean erakutsiko da hilabetez, horren gaineko erabakia hartu baino lehen.
- d) Hilobiaren uzketagatik. Utzitakotzat joko da hilobiaren titularra hil denetik urtebete igaro baino lehen bere oinordekoek, heredentziaz edo bestela beretzakotzea dagokielarik, beren aldeko transmisiorik eskatu ez badute.

Hilobia narriaturik dagoela, titularraren oinorekoek transmisioa egin dakiela eskatzen badute, egokitu egin beharko dute lehenik hiru hilabeteko epean. Agindutako lanak burutu barik igarotzen bada epe hori, iraungitzat joko da hileta-eskubidea eta Udalaren eskuetara itzuliko da.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

e) Titularrak uko egin diolako berariaz.

f) Hileta-eskubidea Araudi honetan xedatutakoa ez den zerbaitetarako erabiliz gero.

41. Artikulua.-

Hileta-eskubidea, bere edukina eta indarraldia dena delakoa izanda ere, esku-aldaezina izango da "inter vivos" egintzez.

42. Artikulua.-

Hileta-eskubidea, bere edukina eta indarraldia dena delakoa izanda ere, dohainik eskualdatuko da "mortis causa"z, ezinbesteko oinordekoen alde. Hileta-eskubideaz gozatzeko izendaturiko onuradunek bi edo gehiago baldin badira, oinordeko zaharrenari emango zaio titularitatea, oinordekoak, ados jarririk, bestelakorik erabakitzen ez badute behintzat. Eskualdaketa etdo transmisioa burutzeko, lehenengo Udalak ezarritako tasak ordaindu beharko dira.

V. ATALBURUA.-

ERAMATE ETA LEKUZ ALDATZEA.-

43. Artikulua.-

Debekatuta dago gorpuak aginduzko zerraldorik gabe eramatea, lekuz aldatzea eta ehorztea.

Hildako errumesentzako zerraldoak Udalak emango ditu.

Gorpuak dituzten zerraldoak, itxi egingo dira beti, dauden tokitik inora eraman orduko.

44. Artikulua.-

Gorpuak hilautoetan eramango dira leku batetik bestera. Gorpuak zenbaiten artean sorbalda gainean eramateko baimena eman liteke, hori horrela egiteko dauden arrazoiak entzunda. Aurrikusitako ibilbidea, ordutegia eta ustez joango den jende-kopuru gutxi gora beherakoa adierazi be-harko da. Eskaera hori Alkatetzan aurkeztu behar da, 24 ordu lehenago, sanitateagintaritzaren txostena edukirik, horri buruzko erabakia har dezan.

45. Artikulua.-

Zerraldo barruan ehorzte-baimena jaso duen gorpua besterik ez da egongo; ezin da zerraldo baten bi gorpu edo gehiago sartu, ondorengo kasuetan izan ezik:



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- a) Erditze unean hil diren ama eta haur jaio berria.
- b) Katastrofeak.
- c) Izurrite haundiak.

Azken bi kasu horietan, dagokion sanitate-agintaritzaren baimena eduki be-harko da.

46. Artikulua.-

Hil den etxean egongo da gorpua Erregistro Zibilari atxikitako osagileren batek haren heriotzea egiaztatu arte. Arau orokor modura, ez da gorpurik ehortziko hil denetik hogeita lau ordu igaro baino lehen, ezta berrogeita zortzi ordu igaro eta gero ere. Tarte hori da gorpua, hil den etxea egon daitekeen gutxienezko eta gehienezko tartea.

Arin usteltzen ari delako, kutsadura arriskua dagoelako edo beste edozergatik, hil denetik hogeita lau ordu igaro baino lehen etxetik eraman dezatela agintzen badu Osasun Agintaritzak, gorpu hori Hilerriko Gorpu Gordelekuan utziko da.

Baltsamaturiko gorpua lauregeita hamasei (96) ordu egon daiteke hil den etxean; behin-behingo kontserbaturiko gorpua hirurogeita hamabi (72) ordu. Baltsamaturikogorpuak eta behin-behingo kontserbaturikoak ezin dira beren etxetik beste batera eraman. Ateratzekotan, etxetik herri honetako edo beste batekohilerri baimendura eramango dira ehortziak izan daitezen.

47. Artikulua.-

Baimena eman daiteke gorpuek leku publikoetan erakusteko, heriotzea gertatu denetik hasita gehienez berrogeita zortzi orduz, eguraldi baldintzek uzten badute behintzat. Alkatetzari eskatuko zaio baimena, non eta zer ordutan izango den adieraziz; sanitate-agintaritzaren baimena jasota, Alkatetzak erabakiko du baimena eman ala ez.

48. Artikulua.-

Aurreko artikuluko bi horiek, Araudi honetako 7. artikuluko II. atalean sartutako gorpuei besterik ez dagozkie.

49. Artikulua.-

Aipaturiko 7. art. horretako I. atalean adierazten diren gorpuei dagokienez, ez zaie emango baimenik lekuz aldatzeko, hilobitik ateratzeko, beste udal batetik hona ekartzeko edo hemendik beste udal batera eramateko.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

I. atal horretan sarturiko gorpuren bat berehala ehorztea gomendatzen duten sanitaterrazoiak badaude, aginpidedun Sanitate Agintaritzak gorpu hori Hilerriko gorpu gordelekura eramateko agindua emango du.

VI. ATALBURUA

EHORZKETA ETA HILOBITIK ATERATZEAK.

50. Artikulua.-

Ehorzketa, hilobitik ateratzea eta gorpu edo hondarren garraioa, indarrean dauden Hileta Sanitaterako Zaingoaren Araudiko arau espezifikoari jarraiki burutuko da beti.

51. Artikulua.-

Araudi honetako 7. art.ko I. atalean sartutako gorpuak, hil diren herriko hilerrian ehortziko dira, halaxe baitago xedatuta Hileta-Sanitateko Zaingoari buruzko Araudiaren 13. art.an.

52. Artikulua.-

Hildakoak, heriotze unean, ez badarama gutxienez hilabete erroldaturik Amorebieta-Etxanoko Udalean, edo erroldaturik dagoen lehen hilabetean hiltzen bada, bere gorpua ezin izango da ehortzi Amorebieta-Etxanoko Udal hilerri batean ere.

Aurreko ataleko debeku horretatik salbuetsita daude familiaren panteoian egin daitezen ehorzketak.

53. Artikulua.-

Amorebieta-Etxanoko Udalean enpadronaturik ez dauden pertsonen gorpuak ehorzteko baimena kasu berezi batzutan besterik ez da emango, eta beti nitxo edo lur-zatiren bat egonez gero. Horrelako ehorzketak egiteko baimena eman behar duen Sail Aginteduna, Alkatea da.

54. Artikulua.-

Ehorztetxeek oso-osoan bete behar dituzte aurreko xedapen horiek. Eurak izango dira, gorpua bere jatorrira eraman behar dutelako, hildakoaren senitartekoei eragindako gaitz eta kalteen erantzule.

Ehorzleak ez du onartuko aurreko artikuluetan adierazitako baldintza guztiak betetzen ez dituen gorpurik.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

55. Artikulua.-

Ez da hilobirik irekiko gorpu-hondarrak hezurtegi amankomunera eramatek, azken ehorketa egin denetik bost urte igaro arte edo heriotzea sortarazi duena osasun aldetik arriskutsua izanik Sanitate-Agintaritzak hala egiteko agindu arte.

Epe horretatik salbuetsita daude Epai-Agintaritzak agindutako desobitzeak eta balsamaturik dauden gorpuak edo hilobitik ateratzean balsamatuko diren gorpuen desobitzeak.

56. Artikulua.-

Demagun nitxo batean ehortzitakoa koleraz, karbunkoz edo Sanitate Erabaki Zentralaren bidez (1974ko uztailaren 20ko Dekretua) zehazturiko beste edozein gaixotasun zolgarriz hil dela: bost urtegarrenean, gaixotasun zolgarriz hildako hori hilobitik ateratzeko, Eusko Jaurlaritzako Sanitate Saileko txostena eta Sanitate arloko Toki Arduradunarena jaso beharko dira lehenik; nitxo batean ehortzitakoa produktu erradiaktiboek kutsatuta hil bada, bost urtegarrenean hilobitik ateratzeko, goian aipatutako aginpidedun sailen txostenak eta Energia Nuklearreko Batzorde Nazionalaren txostena beharko dira, eta arlo horretan aginpidea duen bestelako erakunderen baten berariazko txostena ere.

Heriotzea edo heriotzeak goian azaldutakoaren ondorioz gertatu direlarik gorpuak bost urte baino lehenago hilobitik ateratzeko epailaritzagindua badago, bost urte horiek ehorketa egunetik hasita kontaturik, aurreko ahapaldian adierazitako erakunde guztiek hartuko dute parte, eta agindua eman duen Epailaritzagindua horri gorpua hilobitik ateratzeko erabili behar den prozedura zein den azalduko diote, baita gomendagarria den ala ez ere.

57. Artikulua.-

Gorpuak hilobietatik ateratzeko baimena Alkatetzak emango du. Horretarako, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Heriotze-egiaztagiria. Kanpo arrazoiak direla eta, interesatuak ezin badu egiaztagiri hori aurkeztu, lortu bezain laster aurkeztu beharko du.
- b) Hondarren leku-aldatze agiria, Eusko Jaurlaritzako Sanitate Sailak luzatua. Leku-aldatzerik badago, zein herritatik irtetzen diren hondarrak eta Amorebieta-Etxanoko zein hilerritara ekarriko diren adierazi beharko da.
- c) Hileta-zerbitzuak eskaintteagatik tasen ordain-agiria.
- d) Aginpidedun epailearen baimena, heriotzea kausa naturalengatik gertatu ez denean.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

e) Amorebieta-Etxano udalerrian zentsaturik dagoelako agiria, 52. art.an adierazitakoaren arabera.

f) Kasuan kasu eskatuko diren bestelako agiriak.

58. Artikulua.-

Agiriok aurkeztuta, Lan eta Zerbitzu Alorreko langileek lurperatze-txartela beharko dute. Doakionak txartel hori hilerrian erakutsiko du: horrek, aurkezturiko agiriak ongi daudelako egiaztagiri balioa izango du eta beraz, gorpua ehorzketari ekin dakiola esan nahiko du, berdin delarik hura gordelekuan egon denentz.

59. Artikulua.-

Aurreko artikuluan aipaturiko ehorzketa-txartelean honako hau agiurtuko da:

- a) Hildakoaren izen-deiturak
- b) Heriotze-data
- c) Zer dela eta hil den.
- d) Hilobi mota, eta ehorzketa-toki zehatza.
- e) Ea gorpua gordelekuan gorde behar den.

Ehorzleak txartel hori, gehienez bi egunen buruan, Udaleko Lan eta Zerbitzu Sailari itzuliko dio izenpeturik, dena behar bezala bete dela egiaztatzeko, eta hori Araudi honetako 11,5 art.an xedatutakoaren kaltetan gabe.

60. Artikulua.-

Ehortzitako gorpuak hilobitik atera eta lekuz aldatzeko, Udalaren onespena beharko da, eta, hala dagokionean, Sanitate-Agintaritzaren baimena ere beharko da.

61. Artikulua.-

Ehorzketak lurrezko hilobi, nitxo, obrako hilobi edo panteoi edo mausoleotan egingo dira. Guztiek bete beharko dituzte 1974ko uztailaren 20ko Hileta-Sanitate-rako Zaingoari buruzko Araudian ezarritako baldintzak.

62. Artikulua.-

Ehorzketak ehorzlearen aurrean egingo dira beti.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

63. Artikulua.-

Ehorzketak hilobi numeratuetan: gorpu bana baino ez da ehortziko, beti zerraldo barruan gordeta.

Araudi honetako 45. art.an aurrikusitako kasu berezietan, baimena emango da hilobi bakoitzean gorpu bat baino gehiago ehortzeko.

64. Artikulua.-

Hilobi numeratu bakoitzaren gainean, gorpuari dagokion ordena zenbakia duen zutarri bat jarriko da. Hildakoaren senitartekoek gorpua gordeta dagoen hilobiko zenbakia hartuko dute.

65. Artikulua.-

Lurrezko hilobien gainean jar daitezzen gurutze, lapida edo hilarriak erostea eta jartzea hildakoaren senitartekoen kontura doa. Horien neurriak, Udalaren irizpideen arabekoak izango dira.

66. Artikulua.-

Ehorzketak nitxoetan: zerraldo barruan gorderiko gorpu bana besterik ez da ehortziko, Araudi honetako 45. art.an aurrikusitakoetan salbu.

67. Artikulua.-

Nitxoetan tabikeak egin eta hilarriak jartzeko lana Udalak burutuko du, hildakoaren senitartekoen kontura.

68. Artikulua.-

Udal hilerrietan eraikitako panteoietan ehortzi nahi izanez gero gorpuak, baimena emateko lehendabizi Sanitateko Lurralde Buruzagitzak ikuskatu egin beharko ditu, ea sanitate baldintzak betetzen dituzten ikusteko, halaxe izan behar dela baitago xedatuta 1974ko uztailaren 20ko Hileta-Sanitatetako Zaingoari buruzko Araudiaren 26. art.an.

69. Artikulua.-

Hilobi eta panteoiko apal bakoitzean gorpu bat besterik ez da ehortziko, ehortziko diren gorpuak erditze orduan hildako ama eta jario berria direnean izan ezik. Hilobiko edo panteoiko apalaren ixtea, hildakoaren senitartekoen kontura doa, edo horretarako izendatutakoaren kontura, eta beti egingo da ehorzlea aurrean dagoelarik.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

70. Artikulua.-

Indarrean dagoen legeriaren arabera beharrezkoa izan dadin epai-baimenaren kaltetan gabe, gorpuk edonola maneiatzeko beti beharko da sanitate-alorrekoren baten parte-hartzea edo baimena. Ondorioz, gorpuk behin-behingo iraunarazteko iharduketak, baltsamatzea, erretzea eta gorpuekin beste edozein iharduketa burutzeko, aginpidedun osasun-agintaritzaren baimena eta parte-hartzea beharko da.

71. Artikulua.-

Derrigorrezkoa izango da gorpua behin-behingo iraunaraztea, heriotzea gertatu denetik berrogeita zortzi ordu igarota ehortziko bada; eta gorpua baltsamatzea, hirurogeita hamabi ordu igarota ehortziko bada.

72. Artikulua.-

Araudi honetako 7. art.ko II. ataleko gorpu bltsamatu gabeak hilobitik ateratzeko baimena, honako kasu hauetan emango da:

- a) Hilerri berean segituan berrehortzeko. Gorpua gordetzen duen zerraldoa ordezkatu egingo da, arauen arabera parte hartu behar duen sanitate-langilegoak hala eginbehar dela uste badu.
- b) Beste hilerri batera eramateko. Hori egin aurretik, Probintziako Sanitate Buruzagitzak bere erregistro-liburuan erroldaturiko osagile-tramatologo baten bidez, gorpuaren egoera ikuskatu beharko du eta eguraldia zernolakoa den ere. Ikusketa hori eginda, gorpua lekuz aldatzeko baimena eman badaiteke, dagokion aginpidedun Sanitate-Agintaritzak emango du. Berrogeita zortzi ordu igaro aurretik ehortzi beharko da berriz gorpua.
- c) Hilerri bereko beste hilobi batean ehortzeko. Erasota utzi beharko da gorpua ehortziko den hilobi horretako jabearen adostasuna, baita a) puntuan adierazitakoa ere.
- d) Berehala erretzeok, indarrean dauden arauen arabera.
- e) Amorebieta-Etxanoko hilerrietatik hezurtegi nagusira eramateko atera dadin gorpuren batek ez baditu gutxienezko sanitate-neurri batzuk betetzen, hala nola gorpuaren materia organikoa guztiz deuseztatu gabe egon dadila, itxi egingo da berriz hilobia, nitxo edo panteoia, eta debekatu egingo da gorpuaren maneiatzea. Guzti hori ehozleak egin beharko du. Gorpua hilerrian bertan lekuz aldatzeko edo beste hilerri batera eramateko ateratzen bada hilobitik, nahiz eta bere materia organikoa guztiz deuseztatu gabe egon, egin daiteke garraioa, eta gorpu berria bailitzan jokatukoda, dagokion sanitate-neurriak betez gero. B) atalean adierazitako sanitate-pertsonalari dagokio gorpuaren materia organikoa guztiz deuseztatuta dagoen ala ez erabakitzea, gero horren arabera jokatzeko.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Ehorzleak egin ditzan horrelako lan guztiek ariel batzu sortaraziko dituzte. Ariel horiek, indarrean dagoen Ordenantza Fiskalaren arabera, hildakoaren senitartekoei edo nitxo edo panteoien jabeek ordaindu beharkodituzte.

73. Artikulua.-

Baltsamaturiko gorpuk hilobitik atera eta garraiatzeko baimena sanitate-agintaritzak eman beharko du. Garraiatze-zerraldoaren kanpoko kaxa ez badago ongi kontserbaturik, beste bat ipiniko da bere ordez.

Baltsamaturiko gorpua zerraldo amankomunean ehortsita badago, desobitzea eta garraioa aurreko artikuluan adierazitakoaren arabera burutuko da.

74. Artikulua.-

Aurreko artikuluetan adierazitako desobitzeak egiteko baimena sanitate-agintaritzari eskatuko zaio. Baimen-eskaerarekin batera, desobitu nahi den gorpua ehorketa-agiria ere aurkeztu behar-ko da.

75. Artikulua.-

Gorpu hondarrak Estatuko beste tokiren baten ehortseko egin dadinhondarron desobitze eta garraioa, haiek "hondar-kutxa" deritzanetan gordeta egin daiteke.

Sanitate-Agintaritzari eskatuko zaio horretarako baimena. Baimen-eskaerarekin batera, heriotze-agiria aurkeztuko da: bertan, heriotzea zergatik eta noiz gertatu den adieraziko da.

76. Artikulua.-

Gorpu hondarrak ez diren gainontzeko hondarrak tegi itxi batean gordeko dira, 9. art.ko b) atalean aipaturiko labetik ahalik eta hurbilen. Hustu egin beharko da astero edo sarriago.

77. Artikulua.-

Gorpu hondarrak lekuz-aldatu eta hondar-nitxoetan gordetzeko, metalezko hondar-kutxak erabiliko dira. Kutxa horien neurriak, hondarrak gordetzeko bestekoak izango dira.

78. Artikulua.-

Gorpuak edo hondarrak dauden hilobi batean ehorketa bat egiteko, gorpu edo hondar horiek txikitu egin behar badira, horixe egingo da, norbaitek hala eskatuz gero eta



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

gorpuaren heriotzetik bost urte baino gehiago igaro badira eta bere materia organiko guztia deuseztaturik badago, bertan dagoena, beraz, gorpu-hondarrak izanik (ehortzi direnetik zerraldo barruan). Hala bada, txikitu egingo dira, eta gorpu-hondar horiek hondar-kutxa batera sartuko dira, eta horrela, gorpu hil berri bat daukan beste zerraldo batentzko tokia egingo da. Hori beti egingo da hilobiaren jabearen edo bere ordezeko baten aurrean.

VII. ATALBURUA Ordutegia

79. Artikulua.-

Herritarrak hilerrira joateko ordutegia hauxe da:

- a) Irekita: goizeko zortzietatik aurrera, astelehenetik igandera, urte osoan.
- b) Itxita: gaueko bederatzietatik aurrera, astelehenetik igandera, urte osoan.

Bisitariak aginduzko itzala erakutsiko dute hilerrira barruan. Mozkortuta daudenek debekatuta dute sarrera, baita txakur edo bestelako animaliekin doazenek eta saltzaile anbulanteek ere.

Guztiz debekatuta dago araudi honetan ezarritako ordutegiz kanpo sartzea hilerriotan, premiazko kasuetan, hilerriotako arduradunak bertan daudela, denean izan ezik. Arau hau hausten dutenei agiraka egingo zaie eta hilerritik irtenaraziko zaie, kasuan kasu administrazio edo epailaritza bidez beren aurka egiteratzearen kaltetan gabe.

80. Artikulua.-

Kaleko jendeak debekatuta du gorpu-gordelekura eta hezurtegi nagusira sartzea.

Hildako baten senitartekoen gorpuarekin batera geratu nahi badute gorpua gordelekuan dagoen bitartean egin ahal izango dute Alkate-Lehendakari jaunaren berariazko baimena badute eta egotealdi, ordena eta abarri buruz Hilerriko langile-arduradunek emandako aginduak betetzen badituzte.

81. Artikulua.-

Gorpuak jasotzeko eta ehorzteko ordutegia hauxe da:

Ehorzketari ekiteko, Araudi honetako 80. art.an adierazitako ordutegia bukatzeko 15 minutu falta aurretik egon beharko da gorpua hilerrian; osterantzean, gorpua gorpu-gordelekuan utziko da, hurrengo egunean ehortzi arte.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Igande eta jai-egunetan, eta lehen aipaturiko artikuluan ezarritako ordutegi barruan, hiletaenpresek behar beste langile eraman beharko dituzte ehortzi arte gorpua gorpugordelekuan uzteko. Gorpua goizean utzi bada, egun horretan bertan ehortziko da; arratsaldean utzi badute, hurrengo egunean ehortziko dute.

82. Artikulua.-

Hala ere, adierazitako ordutegi horretatik kanpo ere ehorz daitezke gorpuk, beren egoeragatik hala egitea komeni dela ikusiz gero, eta ehorzketari ekiteko legezko epea bete bada.

VIII. ATALBURUA Arau-Haustek eta Isunak

83. Artikulua.-

Gutziz debekatuta dago hilerrian eta hilobietan inolako material edo gauzarik jartzea, horrelakorik egiteko Udalaren berariazko baimenik ez badago.

84. Artikulua.-

Araua hautsiz, jarri badira, Alkate-tzak hamar eguneko epe barruan baimenik gabe jarritako gauza edo elementu guztiak handik berehala kentzeko agindua emango du. Lan hori, araua hautsi dutenek ordaindu beharko dute.

ERABAKI GEHIGARRIA

Uztailaren 20ko 2263/74 zk.dun Dekretu bidez onaturiko Hileta-Sanitateko Zaingoaren gaineko Araudiari eta Udal-Hilerrietako Ehorzketei aburuzko azaroaren 3ko 49/78 Legeari egokitzen zaio honako Arautegi hau. Bertan aurrikusita ez dagoenaz erabakitzeke, lehenagoko lege-xedapenak eta indarrean dauden beste Arau aplikagarriak hartuko dira kontutan.

AZKEN ERABAKIA

LEHENA.- Araudi honek indarra hartuko du behin-betiko onartu eta gero testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko hamabostgarren egunean.

Udalak Araudi hau aldatzeko eskubidea du. Zerbitzuaren erabiltzaileek eta edonolako hiletaeskubideen titularrek ez dute jazarpenak aurkeztu edo kalte ordainak eskatzeko eskubiderik izango.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

ALDIBATERAKO ERABAKIAK

LEHENA.- Gaurregun behin-betiko emanda dauden kontsezioak, esleipen unean Toki Administrazioak ematen zituen gehienezko kontsezio eta kontratu aldirako emandakotzat hartuko dira. Aldi hori igarota, hilobi-emaketa edo beren luzapenei dagokienez, Ordenanza honetan xedatutakoaren arabera jokatu da.

BIGARRENA.- Ordenantza honek indarra hartzen duen unean, dagokien hileta-eskubidea bereganatzeko eskatu ez duten oinordeko eta ondare edo bestelako tituluz eskubide hori bere gain hartutakoek, urtebeteko epea izango dute hileta-eskubidea bereganatzeko. Epe hori igarota, hileta eskubidea galdua dutela adieraziko da dekretu bidez, eta hilobia, nitxoa eta panteoia Udalaren eskuetara itzuliko da.

HIRUGARRENA.- Ordenantza hau onartu aurretik eraikitako enterramendu nitxoan gaineko hileta-eskubidea, gorpua bertan 10 urtetarako uzteko emango da.